



Usurbilgo Udala

2023/03/28

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2023KO MARTXOAREN 28AN  
GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Agurtzane Solaberrieta Mesa.

**Zinegotziak:** Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Ainhoa Arrozpide Landa.

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel.

Ez dira bertaratu: Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Joxe Mari Iribar Zapirain.

**1.- 2023KO MARTXOAREN 14KO BILKURAKO AKTA.**

Batzarkideek 2023ko martxoaren 14ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- OROITZAPENA ETXEAN (AGINAGA 29) IGOGAILUA JARTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA (2023OHAN0005).**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2023-0063  
2022-OHAN-0005

OROITZAPENA - AGINAGA 29 ETXEKO JABEKIDEEN ordezkaritzan diharduen Nikolas Barandiaran Contreras arkitektoak, Oroitzapena etxean (Aginaga 29) igogailua jartzeko udal baimena eskatu du.

| <b>OBRAREN EZAUGARRIAK</b>          |  |
|-------------------------------------|--|
| Exekuzio materialeko aurrekontua:   | Guztira: 88.419,90 €                                   |
| Hondakinen Kudeaketarako Azterlana: | Aurrekontua: 1.637,90 €<br>Fidantza (%120): 1.965,48 € |

Eskaera aztertu ostean, udal arkitektoak, Joxean Erasun Arancon jaunak, 2023ko martxoaren 15ean ALDEKO txostena eman du.

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

**E R A B A K I A**

**LEHENDABIZI:** OROITZAPENA - AGINAGA 29 ETXEKO JABEKIDEEI, Oroitzapena etxean (Aginaga 29) igogailua jartzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:



- **Obrak hasi aurretik, 15 eguneko epean:**

- Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 1.637,90 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (1.965,48 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

1.965,48 **€-ko fidantza**, Kutxabankeko kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: 2023-OHAN-0005*" jarriaz kontzeptuan.

- Nikolas Barandiaran Contreras eta Jose Miguel Toledo Etxepare arkitektoek 2023ko otsailean idatzitako Exekuzio Proiektuari (G2023A0164/2023-02-09) eta aurkeztutako dokumentazio gehigarriari (G2023A0164/2023-03-07) egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariak bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- **OBRA BAIMENAREN EPEAK:**
  - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - Obraren egikaritzea epe gehiengoa: 12 hilabete.
- **LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA:** Obren egikaritzan lurzoru publikoa okupatu behar bada, dagokion baimena eskatu beharko da.
- Ilogailua ezartzeko egin beharreko obra lanek, oro har, indarrean diren *Eraikuntzaren Kode Teknikoa, 20/1997 Legea irisgarritasuna sustatzeakoa, 68/2000 Dekretua hiri-inguruneen, espazioa publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioak eta Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza* bete beharko ditu.
- Suteen aurkako babeserako neurri orekatzaileak edo konpentsazaileak ezarri beharko dira, proiektuan finkatu den bezala, indarrean dagoen araudia bete beharko da.
- Soinu araudiari dagokionean, ezinbestean bete beharko da soinuen inguruan indarrean dagoen araudia; zehazki 37/2003 Hotsaren Legea eta hura garatzen duen 1367/2007 dekretua. Etxebizitza barnetan ezingo dira finkatutako soinu baremo gehiengoak gainditu eta beharrezkoa balitz horretarako neurri/obra gehigarriak hartu/egin beharko dira bai proiektuan eta baita obren egikaritzan.



Usurbilgo Udala

2023/03/28

- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak diosenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- **Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:**
  - Bertako zuzendari eskudunak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzirik, lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla (balizko eraldaketak), ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.
  - Egiaz burututako lanaren planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.
  - Eraikin edo instalaketen kanpoaldearen argazkiak.
  - Lanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidatzea, lan eta instalaketen egiazko kostea adieraziz.
  - Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik, elektraindarraren hornikuntza sareko Loturako Buletinaren Egokitasun Egiaztagiriaren kopia edo Industria-administrazioan abiarazteko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu izanaren egiaztagiria.
  - Iggogailua funtzionamenduan jartzeko Industria sailaren ziurtagiria/baimena.
- **Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:**
  - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
  - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
  - Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabeko segurtasun neurriak beteko dira.
  - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

### **3.- OSINALDE INDUSTRIALDEKO ZELAI AUNDI KALEA 2KO LANTOKIAN SUBERAKETA-LABEEN EGUNGO HOBIA HAUNDITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA (2022OHAN0026).**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2022-0429  
2022-OHAN-0026

TREMEFIL-IZAGUIRRE, S.A. enpresak, Osinalde industrialdeko Zelai aundi kalea 2ko lantokian suberaketa-labeen egungo hobia haunditzeko udal baimena eskatu du.



Usurbilgo Udala

2023/03/28

| <b>OBRAREN EZAUGARRIAK</b>          |                             |
|-------------------------------------|-----------------------------|
| Exekuzio materialeko aurrekontua:   | Guztira: 154.067,61 €       |
| Hondakinen Kudeaketarako Azterlana: | Aurrekontua: 1.321,23 €     |
|                                     | Fidantza (%120): 1.585,48 € |

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Joxean Eransun Arancon jaunak, 2023ko martxoaren 13an ALDEKO txostena eman du. Hitzez hitz honela dio txostenak:

**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate andreari**  
**OBRA HANDIAK**  
**TREMEFIL-IZAGUIRRE S.A. ZELAI AUNDI KALEA 2KO LANTOKIAN**  
**SUBERAKETA-LABEEN HOBIA HANDITZEKO BAIMENARI TXOSTENA**

---

ESKATZAILEA: TREMEFIL-IZAGUIRRE, S.A.  
KOKAPENA: Zelai Aundi, 2  
ESKAERA DATA: 2022-11-07  
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2022-429 (2022-OHAN-26)  
AURREKONTUA (PEM): 154.067,61 €  
HONDAKINEN KUDEAKETA: 1.321,23 €  
FIDANTZA (%120): 1.585,48 €

---

#### **AURREKARIAK**

- 2022ko azaroaren 7an Tremefil-Izaguirre SA enpresak suberaketa labeen hobia handitzeko obra baimena eskatu zuen.
- 2023ko martxoaren 10ean interesdunak dokumentazio osagarria aurkeztu du, hain zuzen, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzaren jakinarazpena, egin nahi diren obrak esanguratsuak ez direla adierazten duena.

#### **TXOSTENA**

Eskaerarekin batera dagokion proiektua aurkeztu da, Natalia González Villarón arkitektoak sinatua (ez dago dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsia, baina teknikari tituludun gisa aritzeko aitorpena aurkeztu denez, ontzat ematen da). Proiektua honako hauek osatzen dute, besteak beste: Memoria, Kontrol Kalitatearen Plana, Hondakinen Kudeaketari buruzko Azterlana, Planoak, Segurtasun eta Osasun Azterlana, Baldintza Plegua, Lurzoruen Analitika eta Aurrekontua.

Memorian irakur daitekeenez, Proiektuaren xedea honakoa da:



*“Se redacta el presente proyecto con objeto de ampliar el actual foso de los hornos de recocido, ya que para la mejora de la producción, efectividad y reducción del impacto ambiental de los procesos industriales que se llevan a cabo en las instalaciones de Tremefil-Izaguirre es necesario la sustitución de los actuales.*

(...)

*La actuación se realiza en el interior de la nave, no afectando a elementos exteriores del edificio, ni se interviene sobre ningún elemento de uso público.”*

Tremefil-Izaguirre SA enpresaren jarduerak ingurumen baimen bateratua dauka, baina aurrekarietan adierazi bezala, dagoeneko aurkeztua da Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailaren ebazpena, obrak esanguratsuak ez direla adierazten duena; hortaz, ontzat eman daiteke aurkeztutako dokumentazioa.

Dokumentazioa aztertu ostean honakoa esan daiteke:

- HIRIGINTZA ERREGIMENA: Usurbilgo Planeamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren arabera, eraikina hiri lurzoruan kokatzen da, hain zuzen, A-64 ALPERRO eremuan. Dagokion hirigintza fitxak honakoa ezartzen du, besteak beste:

**1- IRIZPIDE ETA HELBURUAK:**

*Industrialde baten antolamendua osatzea.*

- HONDAKINEN KUDEAKETARAKO ARAUDIA: Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 1.321,23 €-koa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batera (1.585,48 €). Fidantza itzultzeko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuta (112/2012 Dekretuaren 6. artikuluari jarraiki). Orohar, bete beharko dira RD 105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.
- LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA: Obren egikaritzan lurzoru publikoa okupatu beharko balitz berariazko baimena lortu beharko da.

## ONDORIOAK



Usurbilgo Udala

2023/03/28

Goian esandakoa kontuan hartuta, ALDEKO txostena idazten zaio suberaketa labeen hobia handitzeko obra baimen eskaerari, honako baldintzekin:

- Obra baimenaren epeak:
  - Obra hasteko gehienezko epea: 3 hilabete.
  - Obra egikartzeko gehienezko epea: 6 hilabete.
  - Obra etenda egon daitekeen gehienezko epea: 3 hilabete.
- Udal baimen honek proiektu teknikoan zehazten diren obrak eta horiek egikartzeko beharrezko bitarteko laguntzaileak baimentzen ditu soilik, aurkeztutako agirietan zerrendatutakoak eta egindako eskariari dagozkionak.
- Egin beharreko obrek eraikineko egitura ezingo dute ukitu. Obrek egiturako elementuak ukituko balituzte edo ondorenean eraikuntzako elementuetan arazoak eragingo balituzte, teknikari gaitu batek esku hartzeko eskatu ahal izango da eta haren lana elkargo ofizialak onestea.
- Obra amaitutakoan, teknikari gaituak sinatutako obra amaierako ziurtagiria aurkeztuko da. Ziurtagiriarekin batera sinatzailearen prestakuntza tekniko edo gaikuntza profesionala egiaztatuko da, teknikari tituludun gisa aritzeko aitorpenaren bidez (Usurbilgo Udaleko inprimakia beteta), baldin eta ziurtagiria dagokion Elkargo profesionalak bisatua ez badago.

Usurbilen, sinaduraren datan.

Udal Teknikaria

Izta.: Joxean Erasun

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** TREMEFIL-IZAGUIRRE, S.A. enpresari, Osinalde industrialdeko Zelaiaundi kalea 2ko lantokian suberaketa-labeen egungo hobia haunditzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik, 15 eguneko epean:**
  - Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 1.321,23 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri behar da obra baimena ematearekin batean (1.585,48 €).



Usurbilgo Udala

2023/03/28

Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

**1.585,48 €-ko fidantza**, Kutxabankeko kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: 2022-OHAN-26*" jarriaz kontzeptuan.

- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
  - Obra hasteko epe gehiengoa: 3 hilabete.
  - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - Obraren egikaritzea epe gehiengoa: 3 hilabete.
- LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA: Obren egikaritzan lurzoru publikoa okupatu behar bada, dagokion baimena eskatu beharko da.
- Udal baimen honek proiektu teknikoan zehazten diren obrak eta horiek egikaritzeko beharrezko bitarteko laguntzaileak baimentzen ditu soilik, aurkeztutako agirietan zerrendatutakoak eta egindako eskariari dagozkionak.
- Egin beharreko obrek eraikineko egitura ezingo dute ukitu. Obrek egiturako elementuak ukituko balituzte edo ondorenean eraikuntzako elementuetan arazoak eragingo balituzte, teknikari gaitu batek esku hartzeko eskatu ahal izango da eta haren lana elkargo ofizialak onestea.
- Obra amaitutakoan, teknikari gaituak sinatutako obra amaierako ziurtagiria aurkeztuko da. Ziurtagiriarekin batera sinatzailearen prestakuntza teknikoa edo gaikuntza profesionala egiaztatuko da, teknikari tituludun gisa aritzeko aitorpenaren bidez (Usurbilgo Udaleko inprimakia beteta), baldin eta ziurtagiria dagokion Elkargo profesionalak bisatua ez badago.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.

**BIGARRENA:** Obrak hasi aurretik, obrari dagozkion **udal-tasak ordaindu** beharko dira.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

**4.- AINTZIZARRA BASERRIKO LURRETAN, 1. POLIGONOKO 78. PARTZELAN UKUILUA ERAITSI ETA BERRIA ERAIKITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA (2022OHAN0029).**

Esp. Zenbakia: HZ..04/2022-0457



Usurbilgo Udala

2023/03/28

2022-OHAN-0029

MIREN KARMELE BONGOETXEA UGARTE anderearen ordezkartzan diharduen Armando Rodríguez García jaunak, Aintzizarra baserriko lurretan, 1. poligonoko 78. partzelan ukuilua eraitsi eta berria eraikitzeke udal baimena eskatu du:

| OBRAREN EZAUGARRIAK               |                           |
|-----------------------------------|---------------------------|
| Exekuzio materialeko aurrekontua: | Guztira: 33.469,49 €      |
| Hondakinen Kudeaketarako          | Aurrekontua: 100,85 €     |
| Azterlana:                        | Fidantza (%120): 121,02 € |

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, nekazaritza eta ingurumen teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, 2023ko martxoaren 20ean ALDEKO txostena eman du.

Gauzak horrela, nekazaritza eta ingurumen teknikariaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** MIREN KARMELE BONGOETXEA UGARTE andereari, Aintzizarra baserriko lurretan, 1. poligonoko 78. partzelan ukuilua eraitsi eta berria eraikitzeke udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Baimen honetan, **EZ** da eguzki instalazio fotovoltaikoa ezartzeko baimenik ematen. Proiektuan planoetan ikusten bada ere, aurrekontuan ez da jasotzen, eta horrelakoa egin nahiko balitz, berariazko baimena eskatu beharko da, dagokion aurrekontu eta memoria teknikoarekin.
- **Obrak hasi aurretik, 15 eguneko epean:**
  - Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 100,85 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (121,02 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.  
**121,02 €-ko fidantza**, Kutxabankeko kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: 2022-OHAN-29*" jarriaz kontzeptuan.
- Obrak hasteko, hondakinen kudeaketari dagokion fidantza ezarri eta **zuinketa**





**akta** izenpetu beharko da.

- Armando Rodríguez García ingeniari agronomoak 2022ko urrian idatzitako Exekuzio Proiektuari (V202201267) eta 2023ko martxoaren 10ean aurkeztutako dokumentazio osagarriari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariak bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Ukuilu berria interesatuaren etxetik 50 m-tara kokatu beharko da, 2023/03/10ean aurkeztu den dokumentazio gehigarrian azaldu bezela.
- Jarduera baimena aurretiazko komunikazio bidez izapidetu beharko da. Obrak bukatu osean, jarduera martxan jarri aurretik, aurretiazko komunikazioarekin batera, hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:
  - Jarduera sailkatuaren aurretizko komunikazioa.
  - Egiaztatze teknikoko ziurtagiria.
  - Instalazio elektrikoaren boletina Industria Sailaren oniritziarekin.
  - Suteen aurkako instalazioen abiatze ziurtagiria.
- EKT eta GAINONTZEKO ARAUDIA: Edonola, indarrean den araudia bete beharko da, bai EKT bai aplikagarria den gainontzeko araudia: Behe-Tentsioko Erreglamendu Elektroteknikoa (BTEE), Eraikinetako Instalazio Termikoen Erreglamendua (EITE), etab.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
  - Obra hasteko epe gehiengoa: 3 hilabete.
  - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 3 hilabete.
  - Obraren egikaritze epe gehiengoa: 12 hilabete.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafikoko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- **Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:**
  - Bertako zuzendari eskudunak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzirik, lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla (balizko eraldaketak), ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.
  - Egiaz burututako lanaren planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.
  - Eraikin edo instalaketen kanpoaldearen argazkiak.
  - Lanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidatzea, lan eta instalaketen egiazko kostea adieraziz.



Usurbilgo Udala

2023/03/28

- Obra berriko deklarazioaren eskrituraren kopia.
- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren alta.
- Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik, elektrairindarraren hornikuntza sareko "Loturako Buletina"ren kopia.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

**Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 10:00k direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**